

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ERRETERIAKO UDALA

2.3 Dirulaguntza lerroa: Gazteak emantzipatzea erraztu ahal izateko dirulaguntza deialdia-2019. BDNS (Identif.): 483088.

2019 urtean emango diren Gazteria saileko dirulaguntzen deialdia. 2.3 Dirulaguntza lerroa: gazteak emantzipatzea erraztu ahal izateko dirulaguntza deialdia-2019.

Azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa Dirulaguntzen Datu-Base Nazionalean kontsulta daiteke, goiburuan zehazten den erreferentzia zenbakiarekin (<http://www.pap.minhafp.gob.es/bdnstrans/ge/es/index>).

Gazteria saileko zinegotzi delegatuak, 2019ko azaroaren 20an emandako ebazpenean, jasotzen diren dirulaguntzak ematea arautzen duten Oinarri espezifikoak eta deialdia onartzea erabaki du. Horien artean:

2.3 dirulaguntza lerroa: gazteak emantzipatzea erraztu ahal izateko dirulaguntza deialdia-2019.

Lerro horretarako baimendutako gastua 90.000,00 eurokoa da.

Eskaerak aurkezteko epea iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den hurrengo egunetik hasiko da eta 2020ko urtarrilaren 15a bitarte izango da (biak barne).

Pertsona edo kolektibo interesdunek Udalaren web orrian (<https://uzt.gipuzkoa.eus/home.do?de=eu067123570>) eta gazteria sailean (tfnoa 943.449.606, eta posta elektronikoa hezkontza@errenteria.eus) aurkituko dute informazio xehatua.

Errenteria, 2019ko azaroaren 21a.—Antolaketako Ordezkaría.
(7360)

AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA

Línea de subvención 2.3: Subvenciones destinadas a facilitar la emancipación de jóvenes de Errenteria. Convocatoria 2019. BDNS (Identif.): 483088.

Convocatoria para la concesión de subvenciones del área de Juventud correspondientes al año 2019: Línea de subvención 2.3: subvenciones destinadas a facilitar la emancipación de jóvenes de Errenteria-convocatoria 2019.

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones, con la referencia indicada en el encabezamiento (<http://www.pap.minhafp.gob.es/bdnstrans/ge/es/index>).

La concejala delegada de Juventud, con fecha 20 de noviembre de 2019, ha resuelto aprobar las Bases específicas y la convocatoria para la concesión de las subvenciones que se contemplan en dicha resolución. Entre ellas, la siguiente:

Línea de subvención 2.3: subvenciones destinadas a facilitar la emancipación de jóvenes de Errenteria. Convocatoria-2019.

El gasto autorizado para dicha línea de subvención es de 90.000,00 euros.

El plazo de presentación de solicitudes será desde el día siguiente a la publicación del presente anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y terminará el 15 de enero de 2020 (ambos inclusive).

La información detallada se encuentra a disposición de las personas o colectivos interesados en la página web del ayuntamiento (<https://uzt.gipuzkoa.eus/home.do?de=ca067123570>) y en el área de juventud (tfno. 943.449.606 ; dirección electrónica hezkontza@errenteria.eus).

Errenteria, a 21 de noviembre de 2019.—La delegada de Organización.
(7360)